

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak memoriarekin erlazionatutako Administrazioaren politika publikoak kudeatuko dituen institutu bat izango du

Memoriaren Nafarroako Institutuak memoria zabaldu eta zainduko du, funts dokumental baten eta jarduera dibulgatzaileen bidez

Ostirala, 2017.eko azaroak 3

Nafarroak Memoriaren Institutua izango du, memoriarekin erlazionatutako Nafarroako Foru Administrazioaren politika publikoak kudeatuko dituen erakunde publikoa. Horrela adierazi du gaur, prentsaurreko batean, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok.

Kontseilariak esan duenez, Institutua «oso tresna garrantzitsua izango da gizarte bidezkoagoa, etikoagoa eta demokratikoagoa eraikitzen lagunduko duten memoriarekin erlazionatutako politika publikoak sustatzeko».

Institutuak bi helburu nagusitan oinarrituta egingo du lan: memoria babestea, funts bibliografikoak, ahozko eta idatzizko lekukotzak, etab. bilduta; eta memoria zabaltzea, era guztietako lan dibulgatzaileen bidez.

Kontseilariaren arabera, Institutuak «memoria historikoa eta azken urteotako memoria landuko ditu, gizarte gisa memoria zaintzeko dugun betebeharrak etiko eta demokratikoari erantzunez, baita biktimek egia jakiteko, justizia izateko eta kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubideari erantzunez ere.

Institutua

Kontseilariak gain, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Álvaro Baraibar ere izan da bertan, eta azaldu du Institutuak memorian eta giza eskubideetan espezializatutako liburutegi bat izango duela. Liburutegi hori liburutegi publikoen sarean integratuta egongo da, eta interesa duten guztientzat irekita. Haren hitzetan, Institutuak «funts historikoak eta artxibategi-funtsak biltzea ere sustatuko du, baita protagonisten zuzeneko lekukotzak grabatzea ere».

Memoria zabaltzeari dagokionez, biltzarrak, erakusketak eta era



Institutu berriaren eginkizunak eta helburuak biltzen dituen grafikoa.

guztietako jarduera dibulgatzaileak egingo ditu Institutuak, baita bilketa-lana egiteko martxan jartzen diren programak koordinatu ere, besteak beste, «Memoria duten eskolak, bakearen eta bizikidetzaren alde» programa, «Sinbologia frankista kentzeko programa» edo «Bakearen eta bizikidetzaren aldeko toki-erakundeen programa».